

20/08 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, Presidenta
Josean Bueno
Ainara Ibáñez
Ana Marta Iriarte
Mari Tere Ojanguren
Iñaki Orbe
Ismael Redondo
Jone Unzueta
Eva Blanco, Secretaria Técnica

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek irailaren 23an eginiko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko **irizpena: euskaraz egindako ikasketa ofizialak ezagutzen dituen eta ikasketa horiek euskarazko hizkuntz titulu eta ziurtagiriekin egiaztatetik salbuesten duen Dekretua bigarren aldiz aldatzeko dekretu proiektuari buruzkoa.**

I.- AURREKARIAK

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak ezagutzen dituenak eta ikasketa horiek hizkuntz titulu eta ziurtagiriekin egiaztatetik salbuestea ezartzen du, otsailaren 26ko 28/2019 Dekretuaren bidez aldatua.

Bestalde, urriaren 16ko 222/2012 dekretuaren bidez sortu eta araututako Euskarazko Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuak (RUTCE) erakunde batzuei eta datuen titularrak diren pertsonen euskarazko ezagutza-mailari buruzko informazio ofiziala ematea du helburu, pertsona horiek egiaztatuta dituzten titulu eta ziurtagiri desberdinetan oinarrituta (1.3. art.).

Hala ere, dekretu horrek ez ditu kontuan hartzen, 3. artikuluan, ikastetxeak, unibertsitateak edo unibertsitateaz kanpokoak, Euskarazko Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (RUTCE), sartu beharreko datuen jatorria diren iturrien artean; datuen jatorri lehenago zeuden administrazio-erregistroetara mugatzen du, Hezkuntza Sailak dituen horiek besteak beste.

II. EDUKIA

Dekretu-proiektuak artikulua bakarra eta azken xedapen bat ditu.

Artikulu bakarrak 7. artikulua berria eranstean dio apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuari, euskaraz egindako ikasketa ofizialak ezagutzen dituenak eta ikasketa horiek hizkuntz titulu eta ziurtagiriekin egiaztatetik salbuesteari buruzkoa.

Artikulu horrek Euskaraz egindako Bigarren Hezkuntzaren eta unibertsitate-irakaskuntzaren ondoriozko euskaren ezagutza-maila ezagutzeko erregistroa sortzea arautzen du.

Azken xedapenak dio noiz sartuko den indarrean dekretua

III. BALORAZIOAK

Euskadiko Eskola Kontseiluak 47/2012 Dekretuaren aldeko txostena egin zuen 11/06 Irizpenean, bai eta bere aldaketa 18/13 Irizpenean ere.

Kontseiluak positiboki baloratzen du proposatzen den aldaketa, alde batetik, Hezkuntza Administrazioari hezkuntza-sistemaren titulu akademiko ofizialen ondoriozko ezagutza kontrolatzeko aukera emango diolako, baita ere erakunde interesdunei azaldutako datuak benetakoak diren egiaztatze aukeragatik eta onuradunei euskararen ezagutza mailari buruzko informazioa lortzeko aukeragatik.

- Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2020ko irailaren 24an

IDAZKARI TEKNIKOA,

Iz.: Eva Blanco

- Ikus-Onetsia
LEHENDAKARIA,

Izp.: Nélida Zaitegi

HEZKUNTZA SAILBURU JAUNA